


PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

HUBBROS taldearen eskutik merkaturatu aldatuko duen produktua asmatu dugu. Produktu hori zapatiletan atxikituko diren zola aldagarriak dira. Zola hauek unibertsalak izango dira eta edozein oinetakoetan atxikitzeko ahalmena izango dute.

Zola mota desberdinak diseinatuko ditugu, lur eta ekintza mota bakoitzerako (bai elurrerako, hainbat kirol ezberdin praktikatzeko, senderismoa egiteko...) eta hori enpresaren produkzioaren alde nagusia jasoko duen arren, beste motatako hainbat artikulu diseinatuko ditugu, guztiak oinetarako erosotasunarekin lotutakoak.

Hasteko, produktu hau hainbat motetako kirolzaleentzat moldatzeko pentsatuta dago, edozein kirol eta lur motarako. Kirolzaleok badakigu kirol bakoitzean oinetakoak garrantzia ikaragarria dutela, eta ezaugarri zehatzak izan behar dituztela, erabiltzailearen erosotasuna eta segurtasuna bermatzeko. Saskibaloian, esaterako, salto egin ostean inpaktua indargetzen duten material bigunak behar dira. Mendira joatean, ordea, luraren irregulartasunak mina eragin dezake erabiltzailearen oinean, eta horregatik erliebe hori leuntzeko materialak behar dira. Ekintza horietan guztietan, garrantzitsuena zola da.



Aipatu dugun moduan, zola aldagarriekin hasteko asmoa dugu, enpresa apala, eta denborarekin hedatuz joango gara gure salmentarekin batera, produktu gehiago diseinatuko dugun heinean, hala nola: guk geuk sortutako oinetakoak, zolekin bateragarriak izango direnak eta ondorioz erosotasuna, aldatzeko azkartasuna eta produktuen merketasuna sendotuko du, zeren produktuak aldatzeko beharra urriago suertatuko litzateke.

Azkenik, enpresaren logoa aurkezten dugu hemen azpian, HUBBROS enpresaren identitatea adierazten duen sinboloa:



Gure aburuz, buruan finkatzen den logoa da, jendeak enpresaren izen onarekin erraz erlazionatu dezakeena. Logoan HUBBROS izenaren BB-ak agertzen dira, haien artean elkartuta, elkarlana eta hurbiltasuna sinbolizatzen duen irudia, transmititu nahi ditugun kontzeptuak.